

Aldundiak apirilean irekiko du Bilboko Foru Liburutegia, berritzeko lanak amaitu ondoan

IBM arkitekto taldeak eginiko eraikin berriarekin, Bilboko liburutegirik handiena izango da

IRUNE BERRO. Bilbo.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbon duen liburutegia hilabete batzuk barru zabalduko du, dena ondo bidean. 2003an hasi zituzten liburutegia berritzeko eta handitzeko lanak, eta Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak esan duenez, lanak bukatzeaz daude jada. Bilboko Foru Liburutegia apirilean inauguratzea espero dute.

Bizkaiko Foru Aldundiak 15 milioi euro inbertitu ditu lanok egiteko. Lehengo liburutegia eta kontserbatorioa ziren eraikinak berritu dituzte, eta, gainera, eraikin berria altxatu dute Arbieto kalean, Portuko Markesaren kalearen eta Astarloa kalearen artean, Foru Jauregiaren atzean. IMB Bilboko arkitekto taldeak diseinatu du. Beiraz eta harriz osatutako kuboa da, eta jada bukatuta dago. Langileen bulegoak ez ezik, liburuak gordetzeko apalategiak izango ditu aurrerantzean.

Orotara, sei solairu ditu eraikin berriak. Haietako batean gordeko dute ondare bibliografiko baliotsuena, hots, Bizkaiko Foru Aldundiak dituen dokumenturik zaharrenak. Hor egongo da, esate baterako, 1472. urtean Johannes Gersonnek Alemanian argitara emandako liburua. Biltegi hori segurtasun neurri bereziekin babesturik egongo da, eta Belen Greaves Kultura diputatuak adierazi duenez, teknikariak baino ezingo dira sartu. Foru Liburutegiko eraikin berriak harrizko eta porlanezko egitura du. Baina paretak bi xafraz osatutako beirazkoak dira. Hala, argia pasatzen uzten dute horma horiek: kanpoaldetik barrualdea ikus daiteke, eta barrualdetik kanpoaldea.

Gainera, egunez, aldamenean dagoen Foru Jauregiaren atzealdea islatzen da liburutegiaren aurrealdean. Eta, gauez, liburuen egitura markatzen du eta kanpoaldera proiektatzen jarri duten argiztapen sistema bereziak. Beirak irudiak ditu, serigrafiak. Hainbat hizkuntzatan idatzitako esaldiak irakur daitezke, liburutegian gordetako liburuetatik hartutakoak guztiak ere. Beirazkoa izaki, argitasun handia du IBM arkitekto taldeak diseinatutako eraikinak. Haatik, liburuak behar bezala babestuta egongo direla ohartarazi du Greavesek. Kanpoan hotz edo bero egin, liburutegi barruan ondare bibliografikoarentzako tenperatura egokia egongo da beti, ziurtatu du. Beiraz gain, harria ere badu eraikin berriaren aurrealdeak. Kuartzita da, eta Txinatik ekarri dute.

Eraikin berriarekin, 12.500 metro koadro izango ditu, guztira, Bilboko Foru Liburutegiak. Bizkaiko hiriburuko liburutegirik handiena izango da

horrenbestez. Lur azpian eraikitako hiru solairuko aparkaleku bat ere izango du.

KONTSERBATORIOA, BERRITZEKO. Kontserbatorio gisa urteetan erabili duten eraikina liburutegi izango da aurrera begira: han jarriko dituzte, besteren artean, irakurtzeko gelak, liburuak kontsultatzeko eta maileguan hartzeko areto eta mahaiak, kartografia eta grabatu sailak eta hemeroteca zerbitzua. Oraindik ez dituzte eraikina zaharberritzeko lanak bukatu, ezta lehengo liburutegia zena berritzeko lanak ere. Elkarri lotuta dauden eraikin bi horietan ari dira lanean orain beharginak.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2003an hasi zituen Foru Liburutegia berritzeko eta handitzeko lanak. Ordutik hona, 40 pertsonako taldeak zaindu du liburutegiko ondare bibliografikoa. 250.000 liburu aldatu behar izan dituzte lekuz, betiere segurtasun neurri zorrotzak beteta.

Lanak iraun duten denboran, gainera, liburutegia ez dute behin ere itxi. Ohiko zerbitzuak eskaini dituzte. Eta horrek lana nahikoa zaildu duela esan du Greavesek, baina merezi izan duela, dudarik gabe. Dokumenturik zaharrenak, halaber, lekuz ez mugitzen saiatu direla esan du.